



LAN HITZARMEN PLATAFORMA

Hau da LABek Lan Hitzarmenaren negoziatorako egiten duen proposamena. Proposamenean LABentzat garrantzitsuenak diren gaiak soilik agertzen ditugu, besteak, hau da edozein Lan Hitzarmenean agertzen direnak (batzorde parekidea, ordezeko legeria,...), eta beraz Lan Hitzarmen honetan ere azaldu beharrekoak, Partzuergoak berak bere proposamen artikulatua egiterakoan islatzea espero dugu.

1.- Denboraldia: urte baterako, 2005erako.

2.- Pertsonalgoaren sailkapena: hezitzailea, administratiboa, koordinatzailea.

3.- Kontratoak: - Eskaintza publikoa izan bitartean.
- Jardun murriztuko lanpostuak gutxienez 4 ordukoak izango dira.
- 1999an Lan Harremanen Kontseiluan Plantilak berriztatzeari eta ordezteari buruz sinatu zen lanbide arteko Akordioa (errelebu kontratua).

4.- Langileen prestakuntza:

LABentzat, kolektiboa hau nagusiki euskalduna izanik, eskainiko zaion **prestakuntza euskaraz** izan behar du.

Orain arte **egindako formakuntzaren azterketa, baita emaileen balorazioa ere.**

Prestakuntza plan jarraitua definitu eta eskaini.

LABek bai orain arte egindako formakuntza zein emaileen balorazioa, bai Partzuergoko langileek behar duten Prestakuntza jarraituaren proposamena urriaren zehar Partzuergoari igortzeko konpromezua hartzen du.

Administratiboen prestakuntza beharrak.

5.- Euskalduntzea:

Partzuergoan, 2. hizkuntza eskakizun gabe lanean ari diren langileek emandako 3 urteko epean 2. hizkuntza eskakizuna eskura dezaten, LABen ustez EAeko irakaskuntza publikoan emandako prozesua eredu bezala har daiteke. Ildo horretan, **langile hauentzat liberazioak eskatzen ditugu**, hasiera 2005eko urtarrila izan daitekeelarik. Hiruhilabete honetan euskara jakitearen maila neurtu beharko litzaieke, eta Hezkuntza Sailarekin IRALerako hauen plazak negoziatu.

Administratiboen beharrak.

6.- Ordainsariak: KPI+ %2a..

7.- Lanaldia: Eskola egutegia eta langileena bereiztu behar dira.

LABek garbi dauka langile hauen izaera hezitzaileena dela, eta lanaldiaren horizontea oso urrun dago Partzuergoak egiten duen proposamenetik. Bitartean eta trantsizio moduan hau da hezitzaileentzat egiten dugun proposamena.

Hezitzaileentzako proposamena:

Denera 1480 ordu, 200 egun.

Eguneko presentzia: 7 ordu, asteko 35 ordu.

Presentziazko ordu kopurua: 1421 ordu.

Zuzeneko arreta: 1303 ordu.



Presentziazko ordu osagarriak: 118 ordu (asteko 2 ordu eta 30 minutu).

Presentziazko ez direnak (prestakuntza): 59 ordu.

Administratiboentzat: 1592 ordu.

8.- Lizentziak eta baimenak:

- Administrazioan, Irakaskuntzan dagoena. Dagoeneko badago, baina agertu beharko litzateke Irakaskuntzan aldaketarik balego automatikoki kolektibo honetan ezarriko litzatekeela.

9.- Aurrerakinak: aurrekontua honetaz baliatu ahal izateko.

10.- Borondatezko erretiroa: jubilatzeke baldintzak betetzen dituztenentzat sariak:

60 urterekin 18 hilabete.

61ekin 14.

62kin 10.

63kin 6.

64kin 3.

11.- Bizitza, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak: Irakaskuntzan dutena.

12.- Langileentzako fondoa: bereziak diren gizarte zerbitzuak ordaintzen laguntzeko: adopzio internazionalak, Gizarte Segurantzak bere gain hartzen ez dituen terapiak, Irakaskuntzan bezala.

13.- Lan Osasuna eta segurtasuna:

- Formakuntza langileentzat.
- Formakuntza aurrezaintza delegatuentzat.
- Aurrezaintza delegatuentzat formaziorako orduak: Formakuntza ihardunaldiak (Osalan, sindikatuak,...)
- Aurrezaintza delegatuentzat orduak: teknikarien bisitak, OSALAN, Osasun eta segurtasuneko komitea,...
- Aurrezaintza delegatua derrigorrez ez izatea delegatu sindikala. Sindikatuak aukeratu ahal izatea.
- Lantokien arriskuen ebaluaketaren plangintza (aurrezaintza delegatuek esku hartzea izateko)
- Osasuna eta seguritateko komiteak.
- Lan hitzarmena sinatuko den unetik 3 hilabetera Sindikatuak eta Partzuergoak elkarri hitza ematen diote aurrezaintza plana zein plangintza adosteko.
- Bi urtetan behin gehienez azterketa medikua.
- Edozein inkapazitate delarik (gaixotasun arrunta, istripua...) %100a.
- Gaixotasun arrunten bajak Mutuekin ez kontratatzea.
- Beste kontingenzietarako kontratatu behar den Mutua, langileen ordezkariekin batera hautatzea.

14.- Eskubide sindikalak:

Delegatu sindikalentzako ordu kreditoa: egun 15 dituzte, eta kreditu horrekin nekez era daiteke Kolektiboa. Delegatu bakoitzeko 40 ordu.

Sekzio sindikala: ordu kreditua sekzio sindikalarengatik. Hileko 40 ordu.



15.- Ordezkatzeko araudia:

LABek uste du EAEko irakaskuntza Publikoko araudia eredutzat har daitekeela. Zerbitzuak baloratzerakoan, Partzuergoan egindakoak gehiago baloratuko dira bestetan egiten diren baino. Publikoko arautegian publikoko zerbitzuak bestetan baino askoz gehiago baloratzen dira. 165 lan egunekin uztaile eta abuztuaren ordainketa.

16.- Ratioak:

Ratioak ezartzerakoan elementu ezberdinak kontuan hartu beharko dira. Besteak beste: Adin tarte bakoitzean haurrak zein hilabetekoak diren, 1-2ko geletan ez da gauza bera aurreneko hilabetekoak izan edo bigarrenkoak. Ratioak ezartzerakoan kontuan hartzeko beste elementua da erreferentzialtasunak duen garrantzia. Irakasle bakarreko, edo biko ikastetxeetan ordezkapenak egiterakoan ordezkoa ezin da pertsona guztiz ezezaguna izan.

17.- Koordinatzaile figuraren ordu murrizpenak.

18.- Joan etorrien arautzea eta desplazamenduen ordainketa: 2 ikastetxe baino gehiagotan ez.

19.- Laneko arropa: kontzeptu honengatik urteko 150 euro.

20.- 6 ordu baino gehiagoko ihardunetan 15 minutuko atsedena, lan denboratzat hartuko dena.

21.- Hezitzaileen eta koordinatzaileen funtzioak negoziatu.

Euskal Herrian 2004ko irailaren 29a.